**2023KO MARTXOAREN 2AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**ACTA DE LA SESION CELEBRADA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL EL 2 DE MARZO DE 2023**

**MODUA**: Presentzialki
**TOKIA**: Batzar aretoa
**EGUNA**: Bia.
**HILABETEA**: Martxoa.
**URTEA**: Bi mila eta hogeita hiru.
**HASIERAKO ORDUA**: Arratsaldeko seiak eta erdi
**BATZARRALDIAREN IZAERA**: Ohikoa
**DEIALDIA**: Lehena
**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA**: Bost (5)

**MEDIO:** Presencial
**LUGAR**: Salon de Plenos
**DIA**: Dos.
**MES**: Enero.
**AÑO**: Dos mil veintitrés.
**HORA DE COMIENZO**: Dieciocho horas y treinta minutos.
**CARACTER DE LA SESION**: Ordinaria.
**CONVOCATORIA**: Primera
**NUMERO DE MIEMBROS QUE LA COMPONEN**: Seis (5)

**MAHAIBURUA / PRESIDENTA**:
Leire Artola Ugalde (EAJ-PNV)

**BILDUAK / REUNIDOS**:
Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV)
Nerea Manzisidor Mendizabal (Beasaingo EH Bildu)
Eva Alvarez Atanes (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak)
Malu Valles Fernandez (EAJ-PNV)

**IDAZKARIA**: ITZIAR AROZTEGUI APAOLAZA

**1.- AURREKO AKTA**. Aurreko Aktaren onespena. 2023-01-26.

Aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da 2023-01-26ko akta.

**1.- ACTA ANTERIOR**. Aprobación del acta de 26-01-2023.

Tras informar el acta se ha aprobado por unanimidad.

**2.- LURRALDE BATZORDEKO PROPOSAMENAK**:

a.- UDAL PARTZELA ALOKATZEA: Iturraldetxikiko Industrialdean dagoen D-1 lursailaren alokairu kontratua. 2023IDBO0003

Ezagutzera ematen da, Lurralde batzordeko proposamena, hau da:

“**Udalaren ondare-ondasun bat hirugarren bati errentan emateko prozedura: Iturraldetxikiko**

**2.- PROPUESTAS DE LA COMISIÓN DE TERRITORIO**:

a.- ALQUILER DE PARCELA MUNICIPAL: contrato de arrendamiento de la parcela D-1, sita en Iturraldetxikiko industrialdea.

Se da a conocer la propuesta de la Comisión de Territorio, a saber:

**Arrendamiento de un bien patrimonial municipal a un tercero: parcela D-1 sita en**

**industrialdean kokatutako D-1 lursaila jarduera ekonomikorako.**

AURREKARIAK

I.- Sasieta Mankomunitateak, lizitazio-prozeduraren ondoren, GOIERRI BILKETA ABEEari esleitu dio hiri-hondakinak eta antzekoak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzuak emateko kontratua, Mankomunitatea osatzen duten udalerrien eremuan. Zerbitzua 2023-01-1ean hasi da eta 10 urteko iraupena du.

II.- Aurrekoa oinarri hartuta, 2023-01-09an, GOIERRI BILKETA ABEEren idazkia sartu da erregistro elektroniko bidez, aipatutako finkaren erabilera alokairuan lagatzeko eskatuz, ondorengoagatik:

**Iturraldetxikiko industrialdea destinada a actividades económicas**

ANTECEDENTES

**I.-** Que UTE GOIERRI BILKETA es la mercantil a la que la Mancomunidad Sasieta ha adjudicado, tras procedimiento de licitación, el contrato de prestación de servicios de recogida y transporte de residuos urbanos y asimilables en el ámbito de los municipios que integran la Mancomunidad. El servicio ha comenzado el 1-01-2023 y su duración es de 10 años.

**II.-** En base a lo anterior, con fecha 9-01-2023 ha tenido entrada por registro electrónico, escrito de UTE GOIERRI BILKETA solicitando se le ceda en alquiler el uso de la finca citada por lo siguiente:

*Además de los vehículos propulsados por combustibles líquidos, existen vehículos propulsados por gas natural comprimido, para lo que necesitamos construir una subestación de abastecimiento de este tipo de combustible en una parcela que tiene una superficie aproximada de 1.500 m2 situada en el sector 8-Iturralde Txiki, en concreto se trata de la parcela D1, en cuyas inmediaciones hay una conducción de gas natural.*

*La estación de compresión propiamente dicha ocupará una superficie aproximada de 350 m2 acondicionándose la superficie restante, aproximadamente 1.100 m2, para poder ubicar una parte del aparcamiento que nos falta para los vehículos adscritos al servicio y almacenamiento de los contenedores que tenemos en stock.*

III.- Udalari aholkua ematen dion arkitektoaren 2022-02-6ko txostena.

IV.- Idazkaritzaren 2022-02-7ko txostena, non esaten duen kontratua zuzenean esleitzeko (lizitaziorik gabe), espedientean justifikatuta geratu behar dela, 33/2003 Legearen 107.1 artikuluan oinarrizko izaerarekin eta 124.1 eta 137.4 artikuluetan osagarri gisa jasota geratzen direla inguruabar hauek: ondasunaren berezitasuna, demanda mugatuta izatea (oinarrizko izaera) eta eragiketaren berezitasuna eta higiezinaren beharra zerbitzu publikoaren funtzio bat betetzeko edo

III.- Informe de 6-02-2022 del arquitecto que asesora al Ayuntamiento.

IV.- Informe de 7-02-2022 de la Secretaria, en donde se indica que para adjudicar directamente el contrato (sin licitación pública), debe quedar justificado en el expediente la concurrencia de las circunstancias que con carácter básico se recogen en el artículo 107.1 de la ley 33/2003 (la peculiaridad del bien y la limitación de la demanda), y con carácter supletorio en los artículos 124.1 (la singularidad de la operación) y 137.4 (La necesidad del inmueble para dar cumplimiento a una función

interes orokorreko xede bat gauzatzeko izatea (osagarri izaera).

Horri dagokionez, adierazi behar da kasu honetan aipatutako inguruabarrak gertatzen direla, hau da:

Ondasunaren berezitasuna: D-1 partzela.

Udal-titulartasuneko G lurzatiaren gainean, administrazio-emakida bat egin zen Sasieta Mankomunitatearen alde, pabiloi bat eraikitzeko. Pabiloi horren beheko solairuan hiri-hondakinak eta antzekoak biltzeko eta garraiatzeko zerbitzua ematen duten kontratisten ibilgailuen zaintza eta tailerra daude.

G partzelaren hego-mendebaldean C partzela dago, eta haren konfigurazio geometrikoak pabiloi estandarra eraikitzea ahalbidetzen du. G partzelaren ipar-mendebaldean, D2 partzela dago, titulartasun pribatukoa eta eraikia, eta haren ondoan D-1 partzela dago. Haren errentamendua ABEEak eskatzen du, C partzela baino forma geometriko irregularragoarekin, azalerari dagokionez txikiagoa, baina eskatutako helbururako egokiagoa, Sasietako pabilioitik gertuen eta egokiena delako, bertan gordetzen baitira kontratako kamioiak eta ibilgailuak.

Demanda mugatuta izatea.

Udala D-1 partzelaren titularra da 8. sektorearen birpartzelazio-proiektuaren bigarren aldaketa Jabetza Erregistroan inskribatu zenetik (2014-12-04), eta orain arte, eremuko beste partzela batzuetan ez bezala, inork ez du harekiko interesik agertu.

Eragiketaren berezitasuna.

Eskatzaileak partzelari eman nahi dion xedea ere berezia da, ez baita pabiloi erabilgarririk eraiki nahi, baizik eta gas natural konprimatuzko hornidurarako azpiestazio bat (350 m2 inguruko okupazioarekin), eta aparkaleku bat zerbitzuari atxikitako ibilgailuentzat eta stockean edukiontziak gordetzeko.

de servicio público o a la realización de un fin de interés general).

A este respecto señalar que concurren en el presente caso las circunstancias indicadas, esto es:

La peculiaridad del bien: parcela D-1.

Sobre la parcela G de titularidad municipal, se efectuó una concesión administrativa a favor de la Mancomunidad Sasieta destinado la edificación de un pabellón, cuya planta baja alberga la guarda y taller de vehículos de los contratistas que prestan el servicio de recogida y transporte de residuos urbanos y asimilables.

Al suroeste de la parcela G se encuentra la parcela C, cuya configuración geométrica permite la edificación de un pabellón de carácter estándar. Al noroeste de la parcela G, se encuentra la parcela D2 de titularidad privada y edificada y junto a esta se encuentra la parcela D-1, cuyo arrendamiento solicita la UTE, con forma geométrica más irregular que la C, más pequeña en cuanto a superficie, pero apta para el fin solicitado y ello por ser la más cercana e idónea al pabellón de Sasieta, en donde se guardan los camiones y de vehículos de la contrata.

La limitación de la demanda.

El Ayuntamiento es titular de la parcela D-1 desde que se inscribiera la segunda modificación del proyecto de reparcelación del Sector 8 en el Registro de la Propiedad (4-12-2014) y hasta la fecha, a diferencia de otras parcelas del ámbito, nadie se ha interesado por ella.

La singularidad de la operación.

El destino que se desea dar a la parcela por parte del solicitante también es singular, ya que no se pretende edificar un pabellón al uso, sino que lo es para ubicar en ella una subestación de abastecimiento de gas natural comprimido (con una ocupación aproximada de 350 m2), y un parking para los vehículos adscritos al servicio y para almacenar contenedores en stock.

Higiezinaren beharra zerbitzu publikoaren funtzio bat betetzeko edo interes orokorreko xede bat gauzatzeko izatea.

Azken batean, lurzatia erabili beharra dago, Sasieta Mankomunitatearekin sinatutako kontratu administratiboaren ondorioz kontratistak dituen betebeharrei erantzuteko. Kontratu horren helburua ondorengo zerbitzu publikoa ematen da: *hiri-hondakin solidoak kudeatzea eta ezabatzea da*.

V.- Beraz, justifikatuta dago kontratua zuzenean esleitu ahal izatea, lizitazio publikorik egin gabe.

OINARRI JURIDIKOAK

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena (9.2 artikulua).

- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa ( 92), Toki Entitateen Ondasunen Araudia onartzen duena.

- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa (106,1, 107.1, 124.1 eta 137.4 artikuluak).

Lurralde batzordeak Tokiko Gobernu Batzarrari honako erabaki proposamena aurkeztu dio:

Lehena. Iturraldetxiko industrialdea dagoen D-1 partzela GOIERRI BILKETA ABEEari errentan ematea, zuzeneko esleipenaren bidez, II. aurrekarian adierazitako helbururako erabiltzeko.

Bigarrena. Errentamenduaren epea hamar urtekoa izango da, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Ez da luzapenik aurreikusten.

Hirugarrena. Hileko errentamenduaren prezioa honako hau izango da: 1.503,24 € gehi uneoro indarrean dagoen BEZ. 2024ko urtarriletik alokairu kontratua amaitu arte, errenta urtero eguneratuko da 2023ko abenduari dagokion estatuko urte arteko KPIaren arabera.

La necesidad del inmueble para dar cumplimiento a una función de servicio público o a la realización de un fin de interés general.

En última instancia, la necesidad de utilizar la parcela lo es, para dar respuesta a las obligaciones a las que la contratista debe hacer frente como consecuencia del contrato administrativo suscrito con la Mancomunidad Sasieta para prestar el servicio de carácter público, *gestión y eliminación de los residuos sólidos urbanos*.

V.- Queda, por lo tanto, justificado el poder adjudicar directamente el contrato sin efectuar licitación pública.

FUNDAMENTOS JURIDICOS

- Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (artículo 9.2).

- Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio (art. 92), por el que se aprueba el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales.

- Ley 33/2003, de 3 de noviembre, del Patrimonio de las Administraciones Públicas (artículos 106,1, 107.1, 124.1 y 137.4).

La comisión de Territorio somete a la consideración de la Junta de Gobierno Local, la siguiente propuesta de acuerdo:

Primera. Arrendar, mediante adjudicación directa, la parcela D-1 sita en Iturraldetxikiko industrialdea a la UTE GOIERRI BILKETA, para destinarlo al fin señalado en el antecedente II.

Segundo. El plazo del arrendamiento lo será por diez años a contar del siguiente al de la firma del contrato. No será susceptible de prórroga.

Tercero. El precio del arrendamiento mensual será de 1.503,24 €, más el IVA legal vigente en cada momento. Desde enero de 2024 hasta la finalización del contrato de arrendamiento, la renta se actualizará anualmente con arreglo al IPC estatal interanual correspondiente al mes de diciembre de 2023.

Laugarrena. Errentariaren kontura izango da errentamendu-kontratuaren epeari dagokion Ondasun Higiezinen gaineko Zerga.

Bosgarrena. Kontratua pribatua izango da.

Seigarrena. Gainerako estipulazioak honekin batera doan kontratu-zirriborroan agertzen dira."

Cuarto. Será a cuenta del arrendatario, el Impuesto sobre Bienes Inmuebles correspondiente al plazo del contrato de arrendamiento.

Quinto. El contrato tendrá carácter privado.

Sexta. El resto de estipulaciones son las que figuran en el borrador de contrato que se adjunta."

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

En el turno de intervenciones los asistentes se han mostrado de acuerdo con la propuesta.

En consecuencia, se ha aprobado la propuesta por unanimidad.

b.- OBRA ZIURTAGIRIAK:

- IXABEL OLANO PARKEAREN ETA KAROBI KALEAREN BIRGAITZEKO OBRAK. 3. ZIURTAGIRIA. 2022OBMA0015

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Nerea Manzisidor Mendizabal andrearen esanetan, kontuan izanda obren egoera ematen du hilabete honetan amaitzeko hasierako aurreikuspena urruti xamar geratzen dela eta baita ere batzordean azaldutako apirilaren lehenengo astea.

Alkateak (Leire Artola Ugalde) eta Lurraldeko zinegotzi delegatuak (Adur Ugartemendia Leunda), esan dute irudipena hori izan daitekeela baina teknikoak Lurralde batzordean aipatutakoaren arabera, obrak apirilaren hasieran amaitzea espero dela.

Bozketa eginda, aho batez ondorengo obra-ziurtagiria (hirugarrena) onartu da: Ixabel Olano parkearen eta karobi kalearen birgaitzeko obrei dagokiena: 111.108,43 €koa (BEZ barne).

b.- CERTIFICACIONES DE OBRA:

OBRAS DE REHABILITACIÓN DE IXABEL OLANO Y KAROBI KALEA. 3ª CERTIFICACIÓN.

En el turno de intervenciones Nerea Manzisidor Mendizabal dice que viendo el estado de las obras parece que la previsión inicial de finalizar este mes queda un poco lejos y también la primera semana de abril tal y como se comentó en la comisión.

La Alcaldesa (Leire Artola Ugalde) y el Concejal Delegado de Territorio (Adur Ugartemendia Leunda) dicen que la impresión puede ser esa pero que según lo señalado por el técnico en la Comisión de Territorio, se espera que las obras finalicen a principios de abril.

Sometida a votación, se aprueba por unanimidad la certificación de obra (tercera) correspondiente a las obras de rehabilitación del parque Ixabel Olano y Karobi kalea, por importe de 111.108,43 € (IVA incluido).

- OBRA ZIURTAGIRIAK: BEASAINGO DOLAREA PARKEAN HAUR PARKE INKLUSIBO BAT GAUZATZEKO ETA TRENBIDE KALEKO HAUR PARKEA BERRITZEA. LIKIDAZIOA. 2022PROB0006

- LIQUIDACIÓN DE LAS OBRAS DEL PARQUE INFANTIL INCLUSIVO EN DOLAREA PARKEA Y RENOVACIÓN DEL PARQUE INFANTIL DE TRENBIDE KALEA DE BEASAIN. 1ª CERTIFICACIÓN.

Aho batez ondorengo obra-ziurtagiria (likidazioa) onartu da: Beasaingo Dolarea parkean haur parke inklusibo bat gauzatzeko eta Trenbide kaleko haur parkea berritzea._ obrei dagokiena: 95.460,29 €koa (BEZ barne).

Se aprueba por unanimidad la siguiente certificación de obra (liquidación) para la ejecución de un parque infantil inclusivo en el parque Dolarea de Beasain y la renovación del parque infantil de Trenbide kalea, por un importe de 95.460,29 €(IVA incluido).

**3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

**3.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Eskaera eta galderetan atalean ondorengoak aurkeztu dira.

En el apartado de ruegos y preguntas se han formulado las siguientes:

J.M ITURRIOTZ-ko OBRAK

OBRAS J.M ITURRIOTZ

Eva Alvarez Atanes, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak udal taldearen zinegotziak obra egiten ari diren eremuan “platanero” zuhaitzak kontserbatu edo kendu egin behar diren galderari erantzunez, Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV) erantzun du esanez, kendu egingo direla batzuk espaloiaren lerrokadura ez dutelako mantenduko eta CAFeko parkean daudenak ere bai hor dagoen eskultura atzealdea delako tokirik egokien makinak errekaraino jaisteko. Kontserbatuko den zuhaitz bakarra kapilaren ondoko ezkia izango da. Kendu eta berreraldatu egingo da.

Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV) responde a la preguntza de la concejala del grupo municipal Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, Eva Alvarez Atanes, sobre la necesidad de conservar o retirar los árboles plataneros en la zona en la que se está ejecutando la obra, diciendo que se van a quitar algunos porque no van a mantener la alineación de la acera y los que hay en el parque de CAF también porque la parte trasera de la escultura que hay ahí es el lugar más adecuado para bajar las máquinas hasta el rio. El único árbol que se conservará será el tilo junto a la capilla, se retirará y se replantará.

Alkatea andreak adierazpenarekiko, hau da, “plataneroak”, landare inbaditzaileak izatea, Eva Alvarez Atanes andreak ihardetsi du esanez, bai horrela dela baina horiek direla betidanik Beasainen egon direnak.

Respecto a la declaración de la Alcaldesa de que los plataneros sean plantas invasoras, Eva Alvarez Atanes responde que es cierto, pero que son los que han estado siempre en Beasain.

Amaitzeko Adur Ugartemendia Leunda jaunak (EAJ-PNV) jakinarazi du, zuhaitzak kentzeak ez duela esan nahi eremu hori zuhaitzik gabe geratuko denik, baizik eta urbanizazioa egin ostean berriak landatuko direla.

Por último, Adur Ugartemendia Leunda (EAJ-PNV) informa que la eliminación de arbolado no supone que esta zona vaya a quedar desarbolada, sino que una vez realizada la urbanización se procederá a la plantación de nuevas.

ARANA KALEA, 5 zenbakian SUERTATU ZEN SUTEA

INCENCIO OCURRIDO EN ARANA KALEA NÚMERO 5

Alkate andreak ezagutarazi du pasa den astelehenean suhiltzaileak sua itzaldu ostean, arratsaldean, arkitektoa, aparejadorea eta udaltzainburua gerturatu zirela ikuskapena egiteko. Erre den etxea bizitzeko at geratu da. Sutea, 1.

La Sra. Alcaldesa informa de que el pasado lunes, tras sofocar el fuego los bomberos, por la tarde, se acercaron el arquitecto, el aparejador y el jefe de la Policía Municipal para realizar la inspección. La casa que se ha quemado no ha quedado habitable.

pisuan gertatu zen eta ikertzen ari dira zer eragin zuen.

El incendio se produjo en el piso 1 y está siendo investigado.

Egun horretan bertan batzar aretoan bizilagunekin bilera egin zen eta eskaini zitzaien Murumendi ikastetxeko gela anitza, herriko eta inguruko hotel eta ostatu etxeak betea zeudelako, baina ez da erabili beharrik izan, batzuek beraien etxebizitzetara bueltatu zirelako arrisku-eza ziurtatu zenean eta beste batzuk senide arteko etxeetara joan zirelako.

Ese mismo día se celebró una reunión con los vecinos en el salón de plenos y se les ofreció el aula polivalente del colegio Murumendi, ya que los hoteles y casas de hospedaje de la localidad y alrededores estaban llenos, pero no ha sido necesario utilizarlos, ya que algunos regresaron a sus viviendas cuando se certificó la ausencia de riesgo y otros se trasladaron a casas de familiares.

Hausnarketa modura Alkateak esan du, kolektibo bati afektatu dezaken ezbehar baten aurrean, preparatuta egotea eskatzen duela.

A modo de reflexión, la  Alcaldesa dice que una desgracia que puede afectar a un colectivo exige estar preparado.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zazpiak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.

Y sin más asuntos que tratar, la sesión ha finalizado a las dieciocho horas y cincuenta minutos, y yo como Secretaria doy fe extendiéndose la presente acta